

ADIERAZLEA:	BESTE ZERBITZUEN SEKTOREKO ENPLEGU KOPURUA
FITXA METODOLOGIKOA	
ARDATZA:	EKONOMIA
ALORRA:	BESTE ZERBITZUAK
DEFINIZIOA:	
Udalerrian dauden beste zerbitzuen sektoreko enplegu kopurua.	
NEURRI UNITATEA:	
Enplegua	
KALKULU METODOLOGIA:	
Beste zerbitzuen sektoreko enplegu kopurua.	
KALKULU MAIZTASUNA:	
Urtero	
INFORMAZIO ITURRIAK:	
Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), Eustat.	
OHARRAK:	
<p>Erreferentziako urtearen aurreko urtean jardueretan modu aktiboan parte hartu duten pertsonen batez bestekoa, eskudirutako edo espezieetako ordainsari baten truke edo enpresa-mozkinen parte baten truke, izango da establezimenduek sortutako “enplegua”.</p> <p>Kontzeptu horretan mota guztietako laneskua sartzen da: jabeak, autonomoak eta bazkide aktiboak, famili laguntzak (partaidetza iraunkorra izan edo ez izan), soldatapeko langile finkoak (etengabeak edo etendunak), eta soldatapeko aldi baterako langileak, nahiz etaaldi batez lanean egon ez, edozein arrazoi dela medio, baina lan harremanak irauten badu (gaixotasuna, amatasun baimena, oporrak, greba, lansaioaren erregulazioa, etab).</p> <p>Lanaldi partzialean egiten diren jardueretan, denboraldikoetan, urtebete baino denbora laburragoan egiten direnetan (urte horretan irekitzeagatik edo ixteagatik), soldatapeko aldi baterako langileek egindakoetan edo langile finko etendunek egindakoetan, lanaldi osoan urteko batez besteko baliokidea zenbatuko da okupatutako langile gisa.</p> <p>Beste zerbitzuen sektoreko enplegu-kopurua zehazteko orduan, ondoko hauek izango dira kontuan: CNAE-2009ko L, O, P, Q, R eta S.</p> <p>L: jarduerak higiezinekin. O: herri administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantzaz. P: hezkuntza. Q: osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak. R: arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak. S: beste zerbitzu batzuk</p> <p>Hondarribia eta Irun udalerriek bereizitako datuak gutxi gorabeherakoak dira, datuek aukera ematen baitute 65 eta 78 barrutietan enplegu batzuk identifikatzeko.</p> <p>65: aseguruak, berraseguruak eta pentsio fondoak, derrigorrezko Gizarte Segurantzaz salbu 78: Eepleguarekin uztartutako jarduerak</p>	